

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Aiarako Udaleko alkateak emandako 2026ko irailaren 15eko Dekretuaren laburpena, zeinak onesten dituen 2026. urtean euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzen deialdia

BDNS(Identif.): 929426.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/929426>).

«Bat etorri Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorren 17.3 b) eta 20.8 a) artikuluetan ezarritakoarekin, argitara ematen da deialdiaren laburpena; testu osoa Dirulaguntzen Estatuko Datu Basean kontsultatu daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>):

Lehenengoa: onuradunak

Aiaran erroldatuta dauden pertsona fisikoak, baldin eta diruz lagunduko den jarduera hasi aurretik, gutxienez sei hilabetez segidan erroldatuta egon badira Aiarako udalerrian, euskara eskolen ehuneko 75era edo gehiagora joan izana egiaztatzen badute, eta ikastaroa hastean hamasei urte beteta badituzte.

Bigarrena: xedea

Deialdi honen helburua da Aiarako udalerriko herritarrek 2026ko ikasturtean euskara ikastea sustatzeko dirulaguntzak arautzea (2025ko urritik 2026ko irailera, biak barne, egindako ikastaroek jasoko dute dirulaguntza).

Hirugarrena: oinarri arautzaileak

Dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak Alkatetzaren 2026ko irailaren 15eko 563/2026 Dekretuaren bidez onetsi ziren eta ALHAOn argitaratu ziren.

Halaber, oinarri arauak euskara ikasteko eta hobetzeko laguntzak arautzen dituen ordenantza jasota daude. Ordenantza hori Aiarako Udalak onetsi, eta 2021eko irailaren 24an argitaratu zen 109. zenbakia duen ALHAOn.

Oinarriak eta eskaera orria Aiarako Udalen web orrian daude eskuragarri: www.aiarako-udala.eus.

Laugarrena: zenbatekoa

Gehienez, kostuaren ehuneko 100 lagunduko da diruz.

Udalaren urteko aurrekontuetan xede horretarako partidan dagoen kopurua egiaztatutako eskaera guztiak betetzeko aski ez izatekotan, lehentasuna emango zaio frogatu eta egiaztatutako daitekeen langabezia egoeran dauden eskatzaileei zenbatekoaren ehuneko 100 emateari, eta, ondoren, proportziozko banaketa egingo da, baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiek matrikularen kostuari dagokion proportziozko ehuneko bera jaso dezaten laguntza moduan.

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede berarekin lortutakoak barne, ezingo du inolaz ere onuradunak egindako ikastaroaren kostua gainditu.

Deialdia 5.000,00 euroekin dago hornituta.

Bosgarrena: eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak egiteko epea 2026ko urriaren 1etik 31ra bitartekoa izango da.

Seigarrena: beste datu batzuk

Eskaera eta adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira.

Arespalditza, 2026ko irailaren 15a

Alkatea

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA